

2026-05-15 / 899 ZENBAKIA / 22. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Gertu da Urnieta Erromerian



Egape Dantza Taldea prestaketa lanetan murgildu da, maiatzaren 23a jomugan / 4-5

## Eusfesta, Andoainen, igande honetan

Euskararen erabilera familia-giroan areagotzeko egitasmoan burubelarri murgildu dira andoaindarrak, Bazkunaren eta guraso talde baten ekimenez / 12



**Erosketa-bonuen udaberriko kanpaina martxan jarri du Andoaingo Udalak / 3**



**Santakruzak: Krutzi maskota berriaren sortzaileekin solasean / 6**

AIURRI



### AURREKONTU IREKIEN PARTAIDETZA PROZESUA

Egin zure proposamena maiatzaren 24ra arte

### INFORMAZIO KARPAK

<b>Maiatzak 15, ostirala</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Etxeberri plaza: 10:00-14:30</li><li>• Zubitxo plaza: 17:00-20:00</li></ul>	<b>Maiatzak 16, larunbata</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• San Joan plaza: 10:00-14:30</li></ul>
--	---



# Azkorteko erromeria alaitsua ospatu dute

Aurreko igandean erromeria antolatu zuen Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako udalarekin elkarlanean. Antolatutako bigarren erromeria ere jendetsua izan zen. Eguraldia lagun, jaiaz gozatzeko aukera baliatu zuten bisitariek

## Txintxarri

2026.06.10 / Lasarte-Oria

Tradizioari eutsita eta Santikurutz egunaren bueltan, Azkorteko erromeria aurrera eraman dute, igande goizean. Goiz eguzkitsua izan da. Alaia eta argitsua, bai meteorologiko bai emozionalki. Izan ere, Azkorteko erromeria ospatu da, Buruntzako Baselizan. Ohiko legez, festa Ttakun Kultur Elkarteak antolatu du Lasarte-Oriako udalarekin elkarlanean. Oinez zein kotxez igo dira ermitara lasarteoriatarrek eta inguruko herrietakoak. Aurten, autobusez ailegatzeko aukera zenez, gizon zein emakume mordoia joan da Buruntzara, Biyak Bat elkartearen paradatik partituta.

Erromeriarekin hasi aurretik lanean aritu dira antolatzaileak eta laguntzaileak Ttakun KEK ipinitako tabernan. Goiz iritsi dira lehen mendizaleak. Jakiez eta edariez disfrutatuta dute; hots, salda, txorizo egosiaz eta edariez. Oso goxoak izanik, berehala agortu dira postuko mokaduak zein freskagarriak.

Postuak postu, Lierni Arozenak eta Olaia Rekondok girotu dute hamaiketako. Sabela beteta eta eztarria freskatuta, lotsati hasi dira mendizaleak dantzari. Hasi dira mendizaleak dantzari. Hasi dira mendizaleak dantzari. Hasi dira mendizaleak dantzari.



Lagun ugari igo zen aurreko igandean Azkorteko ermitara. TXINTXARRI

aldakak mugitzen, baina pixkanaka-pixkanaka gehiago izan dira. Plazadantza saio inprobisatua egitera ere animatu dira. Ederki egin dute dantzan eta ingurukoek ere gogotik gozatu dute eurak ikusten.

Eguerdian partean ekin diote herri kirolei. Alde batetik, Beñat Telleria harrijasotzailea aritu da. Bestetik, Julen Gabirondo eta Aratz Mugerza aizkolaria. Hiru erakustaldi burutu dituzte, txandaka. Aizkolaria hasi dira. Lehenik eta behin, ea nork enborra golpe gutxiagoz mozten duten neurtu dute. Gabirondo gailendu da 33 kolperek. Jarrera, nork egiten duen azkarren. Mugerza izan da garaile lehia

horretan. Amaitzeko, zeinek ebakitzen dituen hiru bizkorren. Gabirondo izan da lehena. Hasteko, ahal beste altxaldi egin ditu 150 kiloko errektanguluarekin Telleriak, bi minututan. Lau egin ditu guztira. Ondotik, 113 kiloko kubikoarekin hamalau altxaldi egin ditu beste bi minututan. Bukatzeko, 100 kiloko bola hamar aldiz jaso du, eta ariketarekin amaituta, ikusleen txalo artean egin du agurra. Goiz apartarekin amaitzeko, elizkizunaren txanda izan da. Alboka Abesbatzak musikatu du meza. Baseliza jendez beteta zegoen. Bien bitartean, trikitia eta panderoa bueltatu dira oholtzara etxerako buelta alaitzeko gogoz.

Datozen egunetan egingo dituzte gainerako guztiak. Prozedura ez da, gainera, nahi bezain arina: "prozesua motela eta xehea da, epaitegiak ez baitigu eman ordainketa bakoitza nondik egin zen zehazten duen informaziorik. Horregatik, udaleko talde teknikoak kasuz kasu egin du lanketa". Maiatzaren 8tik 11ra bitarte, ordainketen %60 egin dituela dio Udalak. Eta, gainerakoak, egunotan egingo dira. Itzulketekin, auzia amaitutzat eman daiteke.

## Hasi dira Zabalgunea Amenabar auziko diru-itzulketak

Aurreko ostiralean hasita Andoaingo bizilagunak hasi dira transferentziak jasotzen

### Erredakzioa ANDOAIN

Zabalgunea Amenabar auzian, urtearen hasieran aurreratutako dirua bueltan jasotzen hasi dira Andoaingo bizilagunak. Udala egiten ari da lanketa hori, Donostiako epaitegiaren aginduz.

Hala, Udalak itzulketen berri eman du sare sozialen bitartez zabaldutako oharrean: "Lehen ordainketak egin dira jada. Joan den ostiralean (maiatzak 8), eta gaur (maiatzak 11), lehen transferentziak bidali dira".

## "Dei egiten dugu errespetuz eta gizalegez jokatzeko"

Azkorteko ermitan asteburuan agertu diren pintaketen aurka adierazpena argitara eman dute

### Jon Ander Ubeda URNIETA

Urnietako Udalean ordezkari den hiru alderdien (EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE) adostasunarekin, adierazpen instituzionala argitara eman zuten astelehen arratsaldean.

### Udal Adierazpena

"Azkorteko ermita, udalerriarrentzat balio berezia duen ondare-ondasuna da eta hormak berriz pintatzeko eta ermita lehengo egoerara bueltatzeko ordena eman bada ere, horrelako ekintzak gaitzetsi egin behar dira berriro gerta ez daitezen. Horrelako ekintzek ez dute lekurik Urnietan.

Urnietako Udalak herritarren adierazpen eta manifestazio askatasuna defendatzen du, baina gogorarazten du aldarrikapen oro gizalegez eta ezarritako prozeduren bidez bideratu behar dela, ondare publikoari kalterik eragin gabe eta komunitate osoari dagozkion espazio

komunak hondatu gabe. Horregatik guztiagatik, Urnietako Udalak:

1. Gertatu diren mehatxu arbuigarri eta onartezin hauek ez dutela lekuri gure herrian eta Urnietaren bizikidetzaren aurka doazela erabat.
2. Urnieta anitza, inklusiboa eta errespetuzkoa izateko konpromisoa berresten du, non desberdinen arteko bizikidetzak funtsezko zutabea izango den. Horregatik, ezin da edozein intimidazio eta seinalatze modu normalizatu eta mehatxu egin zaien sindikatu zein alderdi politikokoekin eta haien ordezkari, kasu honetan, Eneko Anduezar eta Fernando Buesari elkartasuna eta babes adierazten diegu.
3. Dei egiten du errespetuz, erantzukizunez eta gizalegez jokatzeko, ezinbesteko baldintzak baitira Urnietan bizikidetzak egokia bermatzeko eta komunitate-bizitza indartzeko".

## POSTONTZIA

### EH BILDU URNIETA, ANDOAIN

## Bat Egin Eguna

EH Bilduk Buruntzaldeko kideak, tartean Urnietako kideak ere, bildu ditu Usurbilen Bat Egin Egunaren testuinguruan. EH Bilduren instituzioetan egotearekin batera oinarri-oinarrizkoa da herrigintza, kale presentzia, bere DNAN dago. Komunitatea biltzearekin batera, hori da, besteak beste, Bat Egin Egunekin aldarrikatu nahi duena. Politikaren desafekzio garaian gertuko jarduna are garrantzitsuagoa da. Ildo beretik ari da EH Bildu ehunka eragilerekin Nazio Elkarrizketa deritzon entzute ariketa egiten. Usurbilgo ekitaldian EH Bilduren Gipuzkoako arduradun politikoa Nekane Zinkunegik hartu du hitza, eta aipatutako ildo horretan gertuko lana goraiatu du: "Titular kolpeen eta memeen garaiotan, guk aurrez aurreko harremana, ahoz aho transmititzen eta eskuz esku egiten den lana...". Gogora ekarri du, halaber, EH Bilduren herriarekin aipatutako lotura, III. Kongresuan, lehentasunezko apustutzat izendatu zena. Ospatzeko eguna ere izan da. "Esku bete lan dugu, baina lortu dugun guztia ospatzeko eta lortuko dugunaz konspiratzeko lagunartea ere ezinbestekoa da, eta giro sano horren erakusle Usurbilen bildutako jendea", esan du Zinkunegik. "Herrialdeko lehen Bat Egin Eguna, egitarau oparoarekin, eta Bilgune berri baten irekierarekin, EH Bilduren izaera herritarraren erakusle, betoz bat egin egun eta bilgune gehiago", borobildu du Zinkunegik.

## Bonoak eskuratzeko tiketak banatzeari ekingo diote

Kanpaina berria martxan da: hilaren 18tik 22ra bonuak eskuratu ahal izango dira. Lehenago, tiketak, Salkinen

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzu batzuk suspertzea helburu du Andoaingo Udalaren ekimenak. Oraingoan 50 euroko 2.500 bonu salmantan jarriko dira.

Maiatzaren 14an eta 15ean tiketak eskuratu eta, berriz, bonuak erosi ahal izango dira maiatzaren 18tik 22ra. Prozedura dagoeneko ezaguna da: Bonuak eskuratzeko nortasun agiria eta tiketa erakutsi behar dira,

eta gainera, kreditu txartelarekin egin beharko da ordainketa. Tiketak banaketa eta bonuen salmenta, biak ala biak, Salkin elkartearen egoitzan egin behar da. Egoitza Agustin Leitza 11 kalean dago, eta ordutegia: 10:00-14:00/16:30-20:00.

### Koloretako bonuak

Zerbitzu desberdinak bereiziko dituen koloreetan sailkatuko dira: berdea (elikadura eta ostalaritza); laranja (moda); eta, urdina (zerbitzuak, bestelakoak).



Erosketa-bonuen aurkezpena egin zuten aurreko astean, Goikoplazan. AIURRI

## Jose Luis Lopez de Lacalle gogoan hartu zuten

Senideek, lagunek, herritarrek eta PSE-EEko kideek omendu zuten, aurreko larunbatean

### Erredakzioa ANDOAIN

Lore-eskaintza egin zuten, haren oroimenez, bere izena daraman parkean altxa zuten monolitoan. Aurreko maiatzaren 7an, hain zuzen, 26 urte bete ziren ETAK hil zuenetik. Ekitaldian Maider

Lainez Andoaingo PSE-EEko idazkari orokorrak hartu zuen hitza, "Lopez de La Calle diferente pentsatzeagatik" hil zutela gogoratuz. "Bere ideiak lumarekin eta hitzarekin defendatzen zituen, eta pentsalari askea zen".



Lopez de Lacalleren etxekoak eta alderdi sozialistako kideak, lore-eskaintzan. AIURRI

## Meza eta hamaiketakoak, San Isidro egunean

Maiatzaren 15ean ospatzen da San Isidro eguna eta Urrietako Udalak egitarauaren berri eman du. Iazkoari segida emango diote aurten, hitzordu bikoitzarekin: batetik, meza. Eta, bestetik, hamaiketakoak. Udalak zabaldukoaren arabera, meza eguerdiko 12:00etan izango da eta, amaitutakoan, hamaiketakoak Lekaio kultur etxean.

## Zarataren aurkako pantailak jartzeari ekingo dio ADIFek

Leizotz aldean, Arantzibia plazatik aurrera dauden etxebizitzaren aurrean, abiatuko dira lanak

### Erredakzioa ANDOAIN

Trenbideko zarata saihesteko pantailak jartzeko lanei ekingo dio ADIFek. Aurreko asteetan lehen lanak abiarazi dituzte udalerriko hainbat tokitan. Oraingoan, aldiz, pantaila akus-

tikoen oinarriak jarriko dituzte eta horretarako zulaketa-lanak egin beharko dituzte. ADIF-ek Andoaingo Udalarri helarazi dion informazioaren arabera, lanak astelehen gauerdian hastekoak ziren (00:00-05:00

arteko ordutegia) eta obren iraupena hiru asteak izango dela aurreikusi da. Ohar berean jakinarazi dutenez, lanei bitartean kale bereko hainbat aparkaleku baliogabetuko dituzte lanei loturiko hondakinen edukiontzia bertan jarri behar dituztelako.

Lanek jarraipena izango dute, hurrengo asteetan, udalerriko hainbat tokitan: Kale Berria, Joakin Larreta, Juan Bautista Erro, Kaletxiki eta Geltoki kalea.



Lanak Idiazabal kalean abiatu dira. AIURRI



www.aiurri.eus

### Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

### Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

### Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Lide Ruiz Tellera.

### Maketzaileak:

Maddi Trubuelo.

### Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

### Publizitatea:

Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

### Banatzailak:

Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urmietak).

### Diseinua:

Golena / TOKIKOM.

### Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

### Lege Gordailua:

SS-1078/04.

### ISSN:

1698-4870.

### Tirada:

4.000 ale.

### Inprimategia:

Zeroa Multimedia.

### EKOIZLEA:



### ALJATUAK:



### BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINO UDALA



Urrietako Udala

### DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Dantzari ohiekin eta Plus taldearekin azken entsegua egin zuten aurreko asteburuan. AIURRI

# Gertu dago egun handia

Begibistan da XX. Urnieta Erromerian ospakizuna: dagoeneko maiatzaren 23a iristeko atzera kontaktetan murgilduta, entsegu-orokorrera hurbildu da Aiurri astekaria. Lekukotza ugari jaso ditugu bertan

## Jon Ander Ubeda URNIETA

Ospakizunaren antolatzaileek entsegu-sorta iragarri zuten, dantzari ohiak trebatu asmoz. Freskatze saioak izan dira, gutxiago ala gehiago, Egape eta euskal dantzak haien guztien bizitzaren parte izan baitira. Datorrena ez da ospakizun txikia izango. 152 dantzari ariko dira eta, bazkarirako, ia 200 lagun.

Bost entsegu iragarri zituen Egapek eta aurreko larunbatekoa izan zen bosgarrena eta azkena. Hainbat lekukotza jaso genituen Egape ikastolan. Haurtzarora eta Egape elkarrekin lotuta doaz

Leire Garin eta Janire Navarrentzat. Janire hasi da hizketan lehena: “aspaldian dantza taldeko kide izan ginen biak, eta Egapekoek aurtengo ospakizunaren berri eman ziguten. Hitzordua aparta zenez, izena ematea erabaki genuen”. Leirentzat aurreko asteburuko entsegua aspaldiko lanketen berreskuratzeko ariketa bat izan da: “Nire lehen erreakzioa izena ez ematea izan zen, Egaperen dinamika utzi nuenetik urteak igaro baitira. Lagunak gustura zebiltzala ikusita, proba egitea erabaki nuen: bi entseguetara etorri gara eta oso gustura gau-

de. Ea zer moduz doan errereri eguna!”. Iraganera itzultzeko leihotxo bat zabaltzearen pareko esperientzia izaten ari da biantzat. “Txikitako garaietara itzultzearen parekoa izan da. Oso gustura joaten nintzen dantzara. Eta orain ere ondo pasatzea da helburua”, dio Leirek.

Ainara Isasti eta Unai Iraola-entzat freskatze saioak izan dira entseguak. “Entsegu irekietara hurbildu gara aspaldian egiten genituen dantzak berreskuratzeko. Ainara eta biak talde berean aritu gara txikitandik”, zehaztu du Unaik. Eta Ainarak jarraipena eman dio Unaik adie-




San Juan plazan Egaperen bost koreografia adierazgarri egingo dituzte. AIURRI



Dantzariak, lanean. Parean zuten, gidari lanetan, Edu Muruamendiaraz. AIURRI



Leire Garin eta Janire Navarro. AIURRI



Kimetz Cabanillas eta Janire Navarro. AIURRI



Ainara Isasti eta Unai Iraola. AIURRI

razitakoari: "Urtero parte hartu dugu erromerian, oroitzapen onak gordetzen ditugu eta saio hauetan guztietan ondo pasa dugu. Gainera, dantzari ohiekin egoteko eta aspaldiko dantzak berreskuratzeko aukera bikaina izan da". Gustura eta gogoz daude biak: "Sentsazio onak ditugu eta espero dugu jaialdia ere ondo joatea"

Nolakoa izango da Urnieta Erromerian jaialdia? Kimetz Cabanillas eta Janire Navarro dantzariak egin dute aurrerapena: "hilaren 23rako egun polita antolatu dute. Txaranga doinuekin abiatuko da eguna. Kalez kale ibiliko gara eta, eguerdian, emanaldia egingo dugu San Juan plazan. Emanaldi nagusian bost dantza ezagunenak

### "TXIKIAK, GAZTEAK ETA BETERANOAK, GUZTIAK BATERA ARIKO GARA"

JANIRE NAVARRO

egingo ditugu. Txikiak, gazteak eta beteranoak, guztiak batera ariko garen saioa izango da eta, ondoren, bazkaria izango da parte hartzaile guztientzat. Arratsaldean dantzaldi berria egingo dugu eta hura askea izango da: herrikide eta dantzazale guztiei zabalik izango da. Guztiak elkarrekin dantza egin ahal izango dugu".

Giroan, partaideen artean, dagoen sentipena deskribatu du Kimetzek "urteroko erromeriak kutsu berezia hartuko du aurten. Bereziki, aspaldian kide izan ginenok parte hartzeko aukera eman zaigulako. Uste dut denon artean giro ona sortuko dugula Urnietan. Dantzak batzen gaitu eta elkarrekin aritzea handia izango da".

### "DANTZAK BATZEN GAITU ETA ELKARREKIN ARITZEA HANDIA IZANGO DA"

KIMETZ CABANILLAS



Irantzu Oiartzabal eta Irati Exposito. AIURRI

### "Oso polita izango da"

Dantzari ohien artean egindako entseguetan, Irantzu Oiartzabali eta Irati Expositori ere gogotsu antzematen zaie. Ez dute inor kanpoan utzi nahi, gainera: "urnietar guztiak gonbidatu nahi ditugu ospakizunaz gozatzeraz: oso polita izango da". Ondo gogoan dituzte, gainera, maiatzaren 23an dantzatuko dituzten piezen izenak: Marizulo, Egi bila, Urnieta 400, Eteneta eta Mulisko. Guztiak, Txanbolin txistulari bandari lotuta daude, Egaperen bidelagun izan baita hogeitau urte hauetan: Egape DTK sortu dituen koreografiaren soinu banda Txanbolinek musikatu baitu.



Afari-tropikala egin zuten iazko Gazte Festetan. AIURRI

## Poxta Zahar, Gazte Festetarako prest

Moda estiloak izango da aurtengo mozorrorako gaia. Egitarauaren berri eman dute gazteek

### Erredakzioa URNIETA

Maiatzaren 28an pintxo lehia-keta egingo dute, Kantoi tabernatik abiatuta. Hilaren 29an, aldiz, hitzordu ugari: arratsaldean hasita, Olinpiaden finala; iluntzean, afari tematikoa; eta, gauerdian, Komerik erromeria eta DJ Aldana. Biharamunean, egun osoko ospakizuna: poteoa eta herri-bazkaria, San Juan plazan. Arratsaldean, berriz, txaranga eta, gauean, Selektah eta lagunak musika taldea eta DJ LLL disko-jartzailea.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



Urnietako  
udala

# Krutzi, festazaleen lagun berria

Harrera ona egon diote herritarrek aurkeztu berri duten Krutzi panpinari, igaro berri diren Santakruzetan. Izan ere, jaietako protagonistetako bat izateko sortu du Jai Batzordeak



Krutzi maskota, Yune Moreta egilearekin eta Jai Batzordeko kideekin batera. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Tximeleta dendako Yune Moreta jostuna da bere egilea. Azken urtetan bailaran zabaldu den ohitura, hots, festen ikur edo identifikagarri gisa pertsonaje bat asmatzea (esate baterako, Adunan Kukurruko, Asteasuko Elizmendingin Ximon, Urnietan Miela...) ontzat hartu dute, eta horrela, normalki Santa Krutz zubipean, Leitzarango ibaian bizi den antzara hartu dute inspiraziotzat, Santa Krutz jaietan. Krutzi izeneko panpina asmatu dute, era horretan.

Aspalditxotik zebilkitela gogoan ideia, aitortu dute ekimenaren bultzatzaileek, Jai Batzordeko kideek. Nolanahi ere, bazterrean utzi eta utzi, ezin gauzaturik igaro dituzte zenbait urte; harik eta, gogoan hartu duten arte azken aldian Andoaingo zenbait haur eta gurasoentzat maitagarria egin den antzara. "Santa Krutz ermita inguruko hegaztiak erakargarri egiten zaizkie, eta gogoko dute ogi-zatiak ematera joatea haiengana; batez ere aha-teekin batera dabilen antzarak dauka atrakziorik handiena

umeentzat, nonbait. Krutzi izena jarri diote gainera".

Gaineratu dutenez, aurten proba gisa kaleratu dute Krutzi, "frogatzat hartu dugu aurtengoa, ikuskizun izanik nolako harrera egiten zioten herritarrek, eta egia esan, pozik gaude; desafioa gainditu dugula esan daiteke".

Dena esatera, jaien aurretik nahiko isilpean eraman dute ideia, eta apenas egin diote publizitate handiegirik, nahiz eta esku-programan zerbait iragarri zer etor zitekeen, eta baita ere bere irudia zeramaten pegatinak

kaleratu. "Modu diskretu batean hasi ginen zabaltzen bere irudia eta bere presentzia; pregoian balioan agertu zen lehenbiziko aldiz, baina Lebitonen konpartari protagonismoa kendu nahi gabe. Handik jaitsi zenetik aurrera, berarekin argazkia atera nahi izan zuten askok. Jada gertuko pertsonajetzat jotzen dute; Krutziren irudia festarekin identifikatuko dute haurrek eta haur ez garenok ere aurrerantzean. Festak gurekin batera "beti" ospatu izan dituen maskota maitagarria egingo zaigu hemendik urte batzuetara; hala espero dugu behintzat".

## Festazalea eta parte-hartzailea

Urte urte jendartean eta festagirotan errotzen joango den nor-tasun handiko pertsonajea izan dadin nahiko lukete Krutz panpina; alegia, herrikoia, sinpatikoa, haur, gazte eta helduen adiskidea, jai-zalea eta parte-hartzailea... Aurtengoa ikusita, esan daiteke, xede hori lortzeko bidean egon litekeela, "bere lehen Santa Krutzak izateko, jai giroan berehala integratu dela esan daiteke; antzeman da bere presentzia kalez kale, jendea agurtzen eta bostekoa ematen, argazkiak ateratzen edonorekin, eta baita txalaparta jotzen, danborrada zuzentzen, bertsoan, sukaldean bakailao txapelketan, Malkogarriyak taldearekin kantari oholta gainean...".

Aurtengoa ez da ahal izan, baina nork daki, etorkizunean ez ote dugun ikusiko Santa Krutz harritzarrari helduta, ezpata dantzarekin batera, edota, goizean goizeko gaupaseroen argazkian... Berarentzat ekitaldirik erosoena, Leitzarango erreka-jaitziera izango litzatekeela, horrekin ez daukagu zalantzarik.

Juan Bautista Bataiatzailea adinekoen egoitzara bisitaldia egiteko tartea ere hartu zuen Krutzik aurreko astean: "igandean, txakolin dastaketatik txorixoa hartu eta, trikitalariekin batera, kalejiran joan ginen hara. Umore onez hartu gintuzten; Krutzirekin dantzan aritu ziren".

## Yune Moreta, egilea

Kale Nagusian dagoen Tximeleta dendako Yune Moreta jostunak egin du bi metroko Krutzi panpina, eta Jai Batzordea biziki eskertuta dago berarekin; erakutsi duen borondatea eta tre-bezia estimatzen diote: "Orde-

nagailuan geneukan antzara baten irudia eskuan genuela aurkeztu ginen bere dendan orain hilabete batzuk, proposamena luzatuz. Heldu egin zion erronkari, eta oso lan polita egin du, geure burutan irudikatzen genuena egin baitu!".

Yune Moretak aitortu duenez, "erronka latza" egin zitzaion lehenbiziko entzunaldian. "Baina zer arraio, dendako egunero-kotasun eroso horretatik irten eta zerbait berria egiteko planteatu zidatela ulertu nuen, eta arriskatu nuen. Oso pozik nago emaitzarekin, eta batez ere, Jai Batzordeko jendeak nigan jarri duen konfiantzagatik".

Egiari zor, gora behera handiko lanketa suertatu zaiola gaineratu du. "Une txarrak bizi izan ditut maila pertsonalean eta emozionalean, azken asteetan; tentsioa, urduritasuna, etsipena nagusitu izan zait zenbaitetan. Jostun trebea den ahizpak, senarrak, amak... gomendioak, babesa eta animoak eman dizkidate, eta horiei esker egin dut aurrera". Tentsio horiek zerk eragindakoak izan diren galde-tuta, arrazoi bat baino gehiago aipatu ditu berak. Lehenbizikoa, artean sekula heldu ez zion eginkizun berri batekin aritu izana. "Ikasgai polita izan da niretzat, material desberdinak landu ditut, eta prozesu horretan nire ikasketo-gaitasuna noraino iritsi daitekeen ere frogatu ahal izan dut. Azken batean, ekinaren ekinez gainditu ahal izan ditut zailtasun profesional horiek".

Kalean, herritar guztien begiradapeko pertsonaje publikoa josten ari zela jakiteak ere ez dio lasaitasun handirik eman, "erantzukizun handia izan da niretzat".

Ezinegon hori festak bukatu ostean, eta ez lehenago, uxatu zaiola adierazi du azkenik. "Krutzik pregoian egin zuen agerpen publikoa, Zubiaurren, eta hantxe egon nintzen jendartean, isilpean eta urduri, jendearen erreazioa nolakoa izango zen jakin minez. Hurrengo egunetan ere berdin jarraitu nuen, tentsiopean. Jaiak bukatu ondoren ikusi ditut argazkiak, eta horietan Krutzi ageri da, jendartean eta jaiekin gozatzen. Eta batez ere, ikusi dut han eta hemen ibili den arren zutik iraun duela, ez dela hautsi. Horrekin geratzen naiz, egundoko satisfazioarekin".

**Erredakzioa** ANDOAIN

Udal ordezkariak eta herriko elkarteek 2023ko udazkenean abian jarritako hausnarketa prozesu bati erantzunez sortu zen Kultur Mahaia. Herrigintzatik eta kulturgintzatik abiatuta, zenbait helburu jarri zituen jomugan: besteak beste, gizarte eta kultur errealitatearen gaineko azterketa egin, udalak elkarteei eman beharreko aholkularitza eta laguntza zerbitzua zehaztu, azpiegituren azterketa egin, agenda bateratua eratu, herriko jarduna komunean antolatu eta berriak abian jarri, herritarren partaidetza sustatzeko bitartekoak jarri... Emun aholkularitza enpresako teknikariek bideratu da dinamika hori, hasieratik.

Hiru azpi-talde sortu izan dira geroztik: Agenda Bateratua, Auzoetako Jaiak eta Kultur Azpiegiturak.

Herriko zenbait eragilek osatu dute Agenda Bateratuaren lan-taldea azken aldian. Hainbat ekarpen egin ostean, 2026ko urtarrilean eman zuen bukatutzat bere ibilbidea taldeak.

**OLATZ IRIZAR, EMUN-EKO TEKNIKARIA**  
**Zein izan da zure eginkizuna Agenda Bateratuaren lan-taldean?**

Udalak eskatuta, Kultur Mahaia dinamizatzen hasi nintzen Emun enpresako lankideekin batera, teknikari gisa. Bertan, argi ikusi zen agenda bateratua lortzeko lan talde batek hartu behar zuela ardura, eta horrela, lan talde hori koordinatzen aritu naiz.

**Gustura geratu al zara taldearen dinamikarekin eta kideek egindako ekarpenekin?**

Bai, erabat! Hasieratik ikusi nuen oso pertsona dinamikoak eta arduratsuak zirela, geldiegiten ez diren horietakoak; oso garbi daukate zer nahi duten eta zertarako. Beraien ekarpenek eskertu egin du egitasmoak arurrera, hein handi batean.

**Zer nolako herria topatu duzu?**

Pertsona dinamikoekin lan egiteko aukera izan dut eta eurek transmititu didatenarekin osatu ahal izan dut herriaren gaineko irudia. Luzea da Andoain, auzo herria. Antzeko herrietan ez da erraza elkarkidetzan jardutea, errealitatea aldatu egiten baita auzo batetik bestera. Nolanahi ere, Andoainek, bere mesedetan ari diren eragile ugari dauzka, kulturgintzan, aisialdian, auzo-



Agenda Bateratua landu duen kultur-eragileen lan-taldea: Zutik, Xabier Lasa, Lurdes Ubillos, Leire Etxeberria eta Axier Aranburu. Eserita: Belen Ugartemendia, Ainhoa Aiertza eta Olatz Irizar. AIURRI

# Herriko hitzorduen kanala

**OLATZ IRIZAR, AXIER ARANBURU** ANDOAIN BAT AGENDA BATERATUKO PARTAIDEAK  
 Aurreko astean iragarri zuen Andoaingo Udalak Andoain Bat agenda bateratua. Talde lanari zor zaio ekimena errealitate bilakatu izana

jaietan, kirolatan... eta hori azpimarratu behar den ezaugarria da.

**Andoaingo Udalak aurkeztu berri du "Andoain Bat" agenda bateratuaren proiektua. Nola jaso duzu berria?**

Pozik jaso dut proiektua gauzatu izanaren berria, kontuan hartu direlako Agenda Bateratuaren lan-taldeak egindako ekarpenak. Aspaldiko ametsa gorpuztu da.

**AXIER ARANBURU, AGENDA BATERATUKO PARTAIDEA**  
**Zerk bultzatuta animatu zinen Kultur Mahaian zein Agenda Bateratuaren azpi-taldean parte-hartzera?**

Kultur alorreko edozein dinamikan ahal ditugun ekarpenak egitearen aldekoa naiz, eta horrexegatik, ez nuen zalantzarik eduki Kultur Mahaian parte hartzeko, proposamenaren berri

izan nuenetik. Gainera, musikari bezala ere erakarri zidan gonbidapenak, entsegu-lokaleko musikariaren elkarteari zuzenean eragiten dion den gaia izanik.

Behin Kultur Mahaia abian jarrita, Agenda Bateratuaren lan-taldean ikusi nuen egoki nire burua. Izan ere, Andoain dugun kultur bizitza oso aberatsa da, baina askotan sentitu izan dut ekintzak elkarren gainean jartzen zirela, edo informazioa sakabanatuta zegoela. Errealitate hori iraultzeko beharrak bultzatu ninduen, batez ere.

**"AGENDA BATERATUA MARTXAN JARTZEAN ASPALDIKO AMETSA GORPUZTU DA"**

OLATZ IRIZAR

**Agenda Bateratuko kideek asmo bertsua izan al duzue?**

Bai, hasieratik nabaritu genuen bat gentozela diagnostikoarekin: guztion arteko koordinazio falta horrek herritarrek zein antolatzaileak nekarazten gaituela. Tresna erabilgarri, soil eta eraginkor bat lortzea izan da taldekide denon helburua. Hots, 'batzea' agenda bakar baten inguruan.

**Gogokoa izan al duzu taldean edukitako dinamika?**

Oso aberasgarria izan da! Ezberdinen arteko elkarlana izan da, giro irekia eta eraikitzailea

**"XEDEA TRESNA ERABILGARRI, SOIL ETA ERAGINKORRA LORTzea izan da"**

AXIER ARANBURU

bizi izan dugu saio guztietan, eta horrek ematen dio balioa proiektuari. Emun enpresako Olatz Irizarrek egindako lanak asko erraztu digu nork bere ekarpenak egin genitzan. Gainera, partaideon artean, elkarri entzuteko prestutasun handia egon da. Horrelako talde-lanek herrigintzan sinesteko indarra ematen dute, dena esatera.

**Zer inpresio eman dizu aurkeztu berri duten "Andoain Bat" proiektuak?**

Oso positiboa! Aplikazioa instalatu berri dut mugikorrean, eta aztertu dudaren arabera, tresna intuitiboa eta ikusgarria iruditzen zait. Gainera, beste hedapen-kanal batzuk ere izango ditu, webgunea eta paperezko esku-orria. Denon eskura egongo da, eta gainera, ez da agenda soil bat izango, herriaren dinamika desberdinen erakusleho ere izateko jaio dela dirudi.

Egia esan, proiektuak Agenda Bateratuko azpi-taldean landu genituen behar askori erantzuten die; guk proposatuko ideiak aintzat hartu direla ikusi dugu, eta horrek asko poztu gaitu. Zentzua ematen dio horrelako dinamiketan parte hartzeari, guztion ekarpenetatik eginak daudelako.

Diseinuaren aldetik ere, oso erakargarria gelditu dela iruditzen zait; orain, pixkanaka erabilpena ematen hastea izango litzateke hurrengo pausua.

**Deialdi berezirik egingo al zenieke herriko elkarteei? Zergatik?**

Zalantzarik gabe, baina ez soilik elkarteei. Edozein ekimen antolatu nahi duen norbanako, taberna, denda edo eragileei luzatuko nieke gonbidapena. Has daitezke parte hartzen beraien ekitaldiak agenda bateratua izoz! Aukera bikaina da, denon ekimenak bertan izango direlako guztiontzat eskura. Gauza berri guztiekin bezala, bere erabilpenarekin trebatu beharko da hasieran, baina martxa hartu ondoren ikusgarritasun-tresna bikaina izango da herriko eragileentzat.

Hiru alorretan izango dela aberasgarria iruditzen zait: herritar guztiek ekitaldi guztien berri izango dute kanal desberdinetatik; ekitaldi desberdinak egun eta ordu berean egon ez daitezten eta elkarri ez zapaltzeko balioko du; eta, antolatzaileen arteko sinergiak lortzen lagunduko du.



Sari banaketa ekitaldian, Beat Eroak ekimeneko protagonistak eta aurkezleak, elkarrekin, Astigarragako Erribera kulturgunean. AIURRI

# Beat Eroak: hitzarekin eta musikarekin jolasean

Beat Eroak ekimena antolatu dute Buruntzaldeko Euskara eta Gazteria Zerbitzuen lankidetzari esker. Odei Barrosok eta Telmo Trenorrek 12-16 urteko eskualde osoko gazte taldeak trebatu dituzte. Hala, maiatzaren 7an egin zuten sari-banaketa ekitaldia

## Lide Ruiz Telleria ASTIGARRAGA

Proposamen berritzailea egin du, aurtan, eskualdeko euskara zerbitzu mankomunatuak: kultura garaikidean sakontzeko Beat

Eroak egitasmoa martxan jarri du. Lehen edizioko partaideak elkartu zituzten Astigarragako Erribera kulturgunean. Bertan, eskualdeko gazteek beren kantak

aurkeztu zituzten jendaurrean, eta entzuleen zein epaimahaiaren botoak aintzat hartuta, Andoaingo gazteek sortutako "Laguntasuna" abestia izan da irabazlea.

Beat Eroak proiektua, Buruntzaldeko 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako rap tailerra eta lehiaketa izan da, helburu nagusia honakoa izanik: euskararen erabilera sustatzea. Letra eta musika sortzeko ekimena eskualdeko sei udalerrietan antolatu da, hots, Andoainen, Urnietan, Usurbilen, Lasarte-Orian, Hernanin eta Astigarragan. Otsailean abiatu eta udalerrri bakoitzean bina saio antolatu zituzten: bata, otsailean eta, bestea, martxoan. Lehenengoan, Odei Barroso rapero eta bertso-lariarekin oinarri musikala aukeratu eta rap letrak landu zituzten. Bigarrenetan, berriz, Telmo Trenor DJ disko-jartzaile eta ekoizlearen laguntzarekin, landutako oinarri musikarekin eta osatutako letrekin, kantua sortu eta grabatu zuten.

Saio horien ostean, udalerrri bakoitzak bere kanta argitaratu zuen, eta horien arteko irabazlea hautatzeko prozesua abiatu zen. Irabazlea, esan bezala, entzuleen eta epaimahaiaren botoen bidez hautatu dute. Hain zuzen, bozka emateko epea apirilaren 30era arte egon zen zabalik.

## Lehen edizioko partaideak

Udalerriz udalerrri, talde bakoitzak aukeratutako kantuarren izenburua eta partaideak:

### Andoain

#### "Laguntasuna"

Partaideak: Irati Hernandez. Euri Zubizarreta, Ekhi Ugalde, Aroa Etxarte, Jare Lizarralde, Malen Torres eta Aiur Garcia.

### Urnietan

#### "Hau da"

Partaideak: Iker Ramos eta Ramon Grancsa.

### Hernani

#### "Denbora pasa"

Partaideak: Daren Suso, Liher Arruarte, Axel Mendizabal eta Xabi Martinez.

### Astigarraga

#### "Gazteen bizitza"

Partaideak: Oier Lobato, Adei Larrañaga, Oier Casado, Markel Ruiz eta Adur Delgado.

### Usurbil

#### "Larunbat gauak"

Partaideak: Anne Lasa eta Katixa San Millan.

### Lasarte-Oria

#### "Hauek dira"

Partaidea: Ixone Acuña.

### Kantu guztiak, Youtuben entzungai eta ikusgai

Odei Barroso raperoaren laguntza izan zuten kantuarren sorkuntzan. Eta Telmo Trenor DJarekin batera sortu zuten musika. Lanketa horien emaitza dira 6 abestiak eta guztiak batuta aurki daitezke webgune honetan: euskara.buruntzaldea.eus/beat-eroak. Bertan ageri da kantu bakoitzaren leihotxoa, izan ere, Youtubera igota daude Beat Eroak egitasmoa proposamenak. Haiek guztiak entzuteko eta gozatzeko garaia da.

# "Sariaz gain, esperientzia oso atsegina izan da"

**ANDOINGO TALDEA** BEAT EROAK TXAPELKETAKO IRABAZLEAK Irati Hernandez, Euri Zubizarreta, Ekhi Ugalde, Aroa Etxarte, Jare Lizarralde, Malen Torres eta Aiur Garcia zazpikotea izan da lehen edizioko irabazlea

**Lide Ruiz Telleria** ASTIGARRAGA  
**Nola sentitu zarete saria jasotzean?**  
Oso pozik gaude, ez genuen espero. Ez genuen uste azkenak izango ginenik, ezta lehenengoak ere. Sariak ilusio handia egin digu, baina, sariaz gain, esperientzia oso atsegina izan da. Errepikatzea, zalantzarik gabe. **Zuen abestian jorrotutako gai nagusia laguntasuna izan da. Zer dela eta erabaki duzue horren inguruan abestea?**

Abestian esaten dugun bezala, lagunak bizitzako parte oso garrantzitsua dira. Elkarren artean asko laguntzen gara, eta laguntasunak mantenduko ez bagenitu, ezingo genituzke gauza asko egin. Lagunen beharra dugu. **Zuen abestiaren kasuan, zien uste duzue izan dela saria irabazteko gakoa, letraren lanketa ala base musikaren aukeraketa?**

Letra, zalantzarik gabe. Oso esanahi polita du, eta oso ondo adierazten du guk laguntasunaren inguruan pentsatzen duguna

**Saria bideoklip profesional bat egitea da. Badakizue nola egingo duzuen?**

Oraindik ez. Baina oso ilusio-natuak gaude. Ez dakigu ea noiz grabatuko den, eta ea gaia aukeratzeko aukera izango dugun. Andoain aterako da seguruenik, baina ondo egongo litzateke beste herri batzuk ere azaltzea, adibidez, lehiaketan parte hartu dutenak.

Hala ere, ideia batzuk baditugu. Adibidez, oso polita izango litzateke abestiaren errepika Andoaingo Goikoplazan grabatzea, elizaren ondoan, adibidez. **Zuen kasuan, hainbeste partaidea izanik, nola moldatu zarete denen artean abestia osatzeko?**

Denon artean antolatuta ginen, eta ondo moldatu gara. Lehenengo, bakoitzak bere zatia egin zuen. Ondoren, bakoitzak bere zatia aurkeztu, eta denon artean abestiaren errepika osatu genuen.



Irabazleak eta aurkezleak, elkarrekin. AIURRI

## "RAP ABESTI BAT EUSKARAZ EGITEA OSO ESPERIENTZIA POLITA IZAN DA"

Beste herriekin alderatuta, gu izan gara partaidea gehien izan dituenak, eta hori positiboa izan da, ideia desberdinak batuta rapa politagoa baita.

**Lehen edizioan parte hartzea, zer nolako esperientzia izan da?**

Bai, oso polita izan da. Espero dugu hurrengo urtean parte hartzeko aukera izatea.

**Zer moduz moldatu zarete Odei eta Telmorekin?**

Oso ondo, asko lagundu ziguten, eta haiengandik asko ikasi genuen. Erritmoa hartzea zaila izan zen, eta Odeik horretan asko lagundu zigun. Odei eta Telmo profesionalak dira, eta haien ekarpenak oso baliagarriak izan dira. Horrez gain, oso jatorrak dira. Finean, rap abesti bat euskaraz egitea oso polita izan da.



Ikusle ugari bertaratu zen sari-banaketa ekitaldira. AIURRI

## "Oso dinamikoak iruditu zaizkigu kantuak"

**YAN PINTO, ENARA DOMINGUEZ** AURKEZLEAK  
Aktore gazteek ekitaldia gidatu zuten



Enara Dominguez eta Yan Pinto, lehiaketaren aurkezleak. AIURRI

**Xabier Lasa** ASTIGARRAGA  
**Nolakoa izan da emanaldia? Zuen kasuan, biak antzezleak zarete. Ohituta al zaudete jendaurrean aurkezpenak egitera?**

**Yan Pinto.** Bai, baina, hala ere, beti sorrarazten digu urduritasuna.

**Enara Dominguez.** Hori da. Urduritasuna ez da inoiz galtzen. Baina beharrezkoa da; beti behar da tentsio puntu hori.

**Emanaldian, haurrak ez ezik, gurasoak ere egoteak errespetua eragin al dizue?**

**E.D.** Niri umeek errespetu handiagoa ematen didate. Akatsen bat baldin badago, gurasoak ulerkorragoak izaten dira.

**Y.P.** Bai, gurasoek badakite egoten, eta ez bazaie gustatzen, ez dute hain argi adieraziko. Umeak naturalagoak dira, eta haien iritzia gehiago adierazten dute. **Antzele gisa, zein izan da zuen ibilbidea?**

**Y.P.** Duela hiru urte graduatu ginen Bizkaiko Antzerki Ikastegian. Enara antzerkigintzan ibili da, batez ere, eta ni, berriz, ikus-entzunezkoetan. Iaz Goazeneko aurreko ediziorako hartu ninduten, eta horretan aritu nintzen.

**Zuen kasuan, rapa gustuko duzue?**  
**Y.P.** Bai. Egia da ez dudala asko kontsumitzen, baina asko gustatzen zait abesti batzuetan rap zatiak txertatzen dituztenean.

**E.D.** Bai. Txapelketak raparen inguruan ikasteko balio izan

digu. Izan ere, proposamena jasotzean, raparen inguruko informazioa bilatzen hasi ginen, gaiaren inguruan behar adina jakiteko.

**Y.P.** Bai, eta informazio horri esker, guk ere gure abesti propioa sortu dugu, eta gaur aurkezteko aukera izan dugu.

**Zer iruditu zaizkizue abestiak?**  
**E.D.** Oso dinamikoak iruditu zaizkigu, eta nabaritzen da eurek sortu dituztela. Letren bidez, haiek bizitutako esperientziak kontatzen dituzte, eta haien errealitatea islatzen dute.

**Y.P.** Bai, haien mundua eta pentsamenduak asko islatu dira abestietan. Errimak egiteko laguntza jaso dute, baina haien arrastoa nabari da. Hau da, ez dutela beste batek esandakoa idatzi, baizik eta haiek egin dutela. Musika aldetik laguntza handiagoa behar izan dute, baina asko ikasi dutela uste dut.

Bestalde, kanten artean ere desberdintasun handiak egon dira. Usurbileko bi partaideek, adibidez, rapa kantuarekin uztartu dute. Berezitasun hori asko gustatu zaigu.

**"GUK ERE GURE ABESTI PROPIOA SORTU DUGU, ETA GAUR AURKEZTU DUGU"**



Jakoba Errokondo, Ines Azpiazu eta Agurtzane Solabarrieta, Usurbilen, maiatzaren 15 eta 22ko ekitaldien aurkezpenean. AIURRI

# Euskaldunon ahalduntzean mugarri izan zen hitzaldia

Efemeride berezia ospatuko dute, Usurbilen, datozen egunotan: 1966ko maiatzean Udarregi omendu zuten eta bertan ipini zuten eskultura. Egun hartan, bazkalostean, Rikardo Arregi andoaindarrak mugarrria izan zen hitzaldia eman zuen

## Xabier Lasa ANDOAIN

Agurtzane Solabarrieta Usurbilgo alkateak, Ines Azpiazu 650 Usurbil Bizi proiektuko gidariak eta Jakoba Errekondo idazleak aurkeztu zuten zikloa, "Euskararen eta artearen Usurbil. Rikardo Arregiren oihartzuna 60 urte geroago" izenburupean iragarri zutena.

Solabarrieta alkateak gogoratu zuenez, "Joxean eta Jexus Artze anaiak eta Felix Aizpu-

ruak, tarteko, antolatu zuten omenaldia. Remigio Mendiburuk egindako Juan Jose Alkain Udarregiren (1829-1895) omeneko eskultura inauguratu zen. Baina ekitaldi hura inaugurazio hori baino gehiago izan zen, ordea, eta bestelako ekintzak ere antolatu ziren: idazketa lehiaketa bat, bertso saioak, antzerki emanaldiak, eta abar. Inaugurazioaren ondoren, bazkari bat izan zen, eta bazkalon-

doan, Rikardo Arregik hartu zuen hitza: euskararen eta euskal kulturaren aldeko lanean burubelarri murgildua zen ordurako". Rikardo Arregik egun hartan egindako hitzartzea "euskara batua eta euskal estatu baten alde egindako diskurtso gogoangarria" izan zela nabarmendu zuen alkateak. "60 urte pasatu diren arren, gaurkotasan handiko hitzak dira". Mintzaldi hura testuinguru zail

batean egin zuela gehitu zuen: "frankismo batean, zentsurari iskin egitea ez zen erraza. Garai horretan bor-borka zegoen mugimenduaren beste adibide bat izan zen". Solabarrietaren ustez, Euskal Herrian izan zen kultura eztearen lekuko izan zen Usurbil, eta Usurbilek lotura estua eduki zuen Ez Dok Amairu euskal kulturaren berpizkundea bideratu zuen mugimendurekin: "Herriko bi seme, Artze anaiak, mugimendu horren parte izan ziren, eta partaide gehiagok ere bere arrastoa utzi zuten Usurbilen, Mikel Laboak eta Remigio Mendiburuk kasu. Artea ez ezik, historia ere gordetzen dute gure herriko kale eta txokoek, eta hori guztia balioan jarri eta gaur egunera ekarri nahi dugu".

Jakoba Errekondok ere hitza hartu zuen prentsaurrekoan: "Hilaren 22an Sutegitik abiatu eta Udarregiren eskulturara abituko gara. Bidean, paisaiari buruzko azalpena batzuk emango ditut nik, besteak beste, garai hartatik hona zein aldaketa eman den, panorama nola aldatu den, eta ordukoak zeintzuk diren".

Ondoren Lujanbioren tartea helduko da: "Udarregiren idazkera eta alfabetoa ardatz izanik, artxibo moderno bat ulertzeko proposamena egiten du Lujanbiok. Izan ere, Udarregi alfabetatu gabeko pertsona zen, eta alfabeto berezi bat asmatu zuen. Txiki baserrian zenean, bertsoak burura etortzen zitzaizkionean, marra batzuk egiten zituen horman; hor uzten zituen apuntatuta bertsoak. Gero, tarteka, herriko idazkaria eramaten zuen eta hormari begira kantari hasten zen, hark idatzi zitza".

## Jakoba Errekondo, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan

Ohorezko Mugarria jaso zuen iazko azaroaren 27an, Bastero Kulturgunean egin zen sari-banaketa ekitaldian. Nabarmen-tzekoa izan zen Errekondok entzuleengan eragin zuen emozioa. Izan ere, Rikardo Arregik Usurbilekin daukan harreman estua gogorazi zuen: "Udarregi bertsolaria omentzeko Usurbilen 1966an egin zen ekitaldian, Arregik euskararen inguruan egin den hitzaldirik onena" egin zuela esanez batera, eten behar izan zuen mintzaldia Errekondok, erabat hunkituta.

## Hitzordu bikoitza Usurbilen

Arteak eta euskarak pisu nabarmena izan zuen garai historiko hartan, eta 60 urte geroago, ildo bereko egitaraua prestatu dute Usurbilen. Honatx, datozen bi asteburuetarako iragarri dituzten hitzorduak:

### Maiatzak 15, ostirala

19:00 Sutegin: film emanaldia, "Oteiza 14 apostolu". Solasaldia: Oskar Alegria, filmaren zuzendaria; eta, Jaione Apalategi, Jorge Oteiza Fundazioko patronatuko presidentea.

Sarrera: 6 euro. On line erosteko aukera dago: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus).

Zuzendariak artearen eta kulturaren arloko 14 pertsonen testigantzekin osatu du filma. Oteizaren ideien inguruko friso kolektibo bat osatzea izan da bere asmoa; besteak beste, hartu dute hitza Maialen Lujanbiok, Bernardo Atxagak, Richard Deaconek, Jaione Apalategik, Kepa Akixok eta Esther Ferrerrek. Oteiza bera 1966ko omenaldi-ekitaldi hartan izan zen, eta urte horretan bertan sortu zen Gaur taldeko kidea izan zen.

### Maiatzak 22, ostirala

18:00 Sutegin: film emanaldia, "Zutik". Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia: Ainara Mendiola (filmaren zuzendaria), Ismael Manterola (Arte Ederren Fakultateko dekanoa) eta Idurre Eskisabel (Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia). Itxiera-ekitaldia, Remigio Mendibururen eskulturaren: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo.

Gonbidapenak, doan, [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) webgunean

# Rikardo Arregiren mintzaldia

“Udarregiren omenez egin den eskulturaren aurrean Euskal Herriko artistek egin behar zioten omen berezia. Nik gaur, orain, une honetan, euskal gazteriaren izenean eta euskal idazle berrien izenean Udarregiri omena egin nahi nioke”



Behean, ezkerretik bigarrena, Rikardo Arregi. ARREGI SENDIA / NAIZ BIDEZ

## Rikardo Arregi

1966.5.22 /Usurbil

HEMEROTEKA

“Ez zaitezte beldurtu, laburra izango naiz. Baina egia esateko beldurra ematen dit une honetan, bazkari on bat egin ondorenean esango ditudan esatea. Baina gaurko gazteriak, gazte guztiak bezala, gauzak benetan esan nahi baldin baditu... badirudi Usurbilek bere semearen jaia ospatu duelako denok alai eta pozean izan behar genukeela.

Baina, zoritxarrez, ez daukagu gaur egunean guk euskaldunok Xenpelarrek bere bertsoan zionez, “gu bai gera Euskal Herria”. Ez dugu pozik eta alai izateko eskubiderik, hiltzorian dagoen pertsonak, hiltzorian dagoen gizonak ez du behin ere eskubiderik, ez du behin ere pozik eta alai izateko momenturik.

Horregatik gaur egunean mar-txa honetan jarraitzekotan, hemendik bi belaunaldietara, hemendik bi generazioetara, ez dira Euskal Herrian izango euskaraz hitz egingo duen Eus-

kal Herrian Udarregiren bertsoak irakurriko dituztenik. Martxa honetan, ez baita izango hemendik urte batzuetara, gauzak aldatzen ez badira behinik behin, euskaraz hitz egingo duenik.

Eta gu herri bezala hiltzekotan garen ezker, ez dut uste alai eta pozik izateko eskubiderik daukagunik. Heriotzako orduak beti izaten dira tristeak eta gaur egunean Euskal Herriak euskaldun guztiok osatzen dugun Euskal Herriak momentu triste hori bizitzen ari da: hil edo bizi.

Eta horregatik nik pozik nahi nuke momentu honetan alaitasunezko eta pozezko hitzak adieraztea baina gure burua engainatu nahi ez baldin badugu, argi eta garbi gure errealitateari aurpegi eman behar diogu. Eta gure gaurko errealitatea hiltzeko zorian gaudela da.

Atzo zioten bertsolariak eta gaur ere zerbait entzun dugu, eta maiz gure artean entzuten dugu gurasoak, fraideak, mojak, euskaraz egiten baldin badute... euskara biziko dela.

Baina ez gaitzen engainatu, hori ez da egia. Bestekorik ez dagoen bitartean hori gertatuko da, baina hori ez da egia. Egun hauetan entzun ditugun abestiak, egun hauetan ikusi ditugun antzerkiak, egunero radioetan, egunero telebistan, egunero gure egunerokoetan, egunero gure zineetan [euskara erabiltzen ez bada] alferrikakoa izango da gurasoek bere semeek euskaraz erakustea eskatzea. Egunero gure zineak, gure periodikoak, hitz batean esateko, gure gizartea euskaldun izatera iristen ez den bitartean alferrikakoa da pentsatzea gure hizkuntza zaharra eta gauza guzti horiek borondate on huts batez biziko direla. Ez. Gure problemak behar bezala sendatu nahi baldin baditugu, argi eta garbi eman diezaiozun aurpegi gure problema-ri eta gure errealitateari.

Eta gure errealitatea da gaurko gure Euskal Herri hau ez dela euskalduna, ez baitago euskaldunen mendean, ez baitago euskaldunen eskuetan. Eta alferri-

kakoa da gurasoek eskatzea bere semeek euskaraz erakustea, borondate onez ez da euskara salbatuko. Euskara salbatuko da Euskal Herriko zineak, Euskal Herriko legeak, Euskal Herriko gizartea euskaldunon eskuetan egongo den orduan. Gainontze-koak gezurrezkoak dira, ez dira benetako problemak. Horretara iristen ez garen bitartean, ez dezagun uste izan borondate hutsez, borondate onez bakarrik salbatuko dela euskara. Horregatik gure errealitateari aurpegi eman behar diogu eta horregatik ez gaitzen lainoetan ibili. Estatu batek bakarrik salbatu lezake Euskal Herriaren salbazioa. Beste diskusio bat izango da, beste eztabaida bat izango da estatu hori zer estatu izango den eta nolako estatua. Baina inork ere, bere buruarekin jator baldin bada, eta lehengoari utsia ez baldin badago, inork ere ukatu ezin lezakeena da estatu baten bitartez bakarrik konponduko direla eta estatu baten bitartez bakarrik salbatuko dela Euskal Herria eta euskara.

Gaur Usurbilen lehenagoko, antzinako, gure aurreko bertsolari bat ospatzen genuen gaur Usurbilen: Udarregi. Baina Udarregiren omenez altxa da, jaso da, Usurbilgo enparantzan eskultura berri bat. Eta horrek zer esan nahi du? Euskal Herria lehenari begira ez dela salbatuko, gaurkoari eta biharrari begira. Horregatik hasieran esaten nuen bezala, iruditzen zait ez dela hau momentua, ez dela hau unea pozik eta alai izatekoa. Baizik eta gure problemei behar bezala aurpegia ematekoa. Gaur egunean Euskal Herriak ez dauka arrazoi bat ere, dirua besterik, alai izateko. Gaur egunean, Euskal Herrian zenbait eta zenbait jende injustiziaren mendean bizi dira. Gaur egunean Euskal Herrian zenbat eta zenbat gizon gure osotasunera, gure zabal-kundera iristeko milaka eragozpen eta oztopo aurkitzen ditugu. Une honetan nola izango gara ba alai? Ez gaitzen bizi lehengoan pentsatzen. Lehengoak bere balioa badu baina etorkizunari begira, itxaropenari begira eta horregatik iruditzen zait niri euskararen salbazioa ez dela etorriko jakintsu batzuk euskaraz asko estudiantzen dutelako, baizik eta euskara injustiziaren kontrako hizkuntza izatea iristen den garaian. Horregatik

iruditzen zait niri gaur Usurbilgo enparantzan ikusi duguna lehengo euskaldun jator baten omenez jaso den eskultura berri hori. Hori etorkizunerako dei bat da, euskaldunok lehengoak ez dugu ahaztu behar baina gaurkoari eta geroari begira bizi behar dugu. Ez dugu tradizioari eta lege zaharrari begira egon behar, Euskal Herria oraindik jasotzeko gizarte berri bat da. Euskal Herria ez da berpiztu behar den gizarte bat, oraindik jasotzeko dagoen gizarte bat da. Eta gizarte hori jasotzeko ez dezagun gure burua engainatu, ez dezagun uste bertso batzuen-gatik, ohitura batzuen-gatik eta sentimendu batzuen-gatik salbatuko dugula. Ez, Euskal Herria borroka eginik, denok gure gizasuna osatzeko moduan altxa behar dugun Euskal Herri hori izan behar dugu.

Eta horregatik eskultura horrek horixe bera esan nahi du, gaur egunean badira zenbait euskal gazte, badira zenbait euskal gaztedikoak borrokan dabiltzanak Euskal Herri berri hori jaso nahian. Eta zenbat aldiz, benetan aitortzen dizuet, itxaropena galtzen dugu ea iritsiko ote den Euskal Herri berri horren garaia.

Baina gaur artistak zorionez, pintore eta eskultore horiek, adierazten digu badela posibilitate bat, badela ahalmen bat euskal gizarte bat, euskal pentsamendu bat, euskal arte berri bat sortzekoa.

Udarregi baliozko izan zen bere garaian, bere garaiko problemak bizi izan zituelako. Eta horregatik gaurko artista berri horiek [esaten] digute: Euskaldunak begira dezagun aurrera, ez gaitzen lehengo ametsetan bizi. Euskal Herria oraindik egin gabe dago, Euskal Herria gu bakarrik borrokarekin osatu dezakegu. Eta ez sentimenduetan eta konplazio txarretan biziak, baizik eta jatorki beti uste izan dugu euskaldunak jatorrak izan garela, eta benetako gizonak. Askotan pentsatu behar dugu hori ez dela egia.

Horregatik bukatzera noa, eta nik nire adiskideen izenean, euskal idazle berrien izenean eta zenbait euskal gazteen izenean Udarregiren omenera juntatzen gara, batzen gara, bat egiten dugu Udarregiren omenaldiarekin, baina ez lehengoak bizi nahian baizik eta berria ekarri nahian. Besterik ez, gora Euskal Herria!.”



# Eusfesta, igandean

Euskaraldiarekin egin bezala, Eusfera euskararen aldeko aktibazio egitasmo berriaren iraupena hamaika egunetakoa da. Andoainen, bereziki, egitarau oparoa burutzen ari dira. Eta, igande honetan, amaiera eman nahi diote Eusfesta egun osoko ospakizunarekin



Leizaur parkean haur eta guraso ugari elkartu zen, Eusferaren lehen hitzorduan. AIURRI

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Taupa mugimenduak, Euskal Herriari begira, xede argia eta zehatza irudikatu zuen Eusfera iragartzean: "euskara ez da bakarrik ikastetxeetan erabiltzeko hizkuntza; euskaraz irakurri, dantzatu, amestu, sortu eta gozatu daitekeela erakutsi nahi diegu gure haurrei". Egitasmoa Andoainera ekarrita, egitarau oparoa burutzen ari dira. Gurasoen partaidetza giltzarri da eta, talde-gidariaren lankidetzari esker, egun osoko Eusfesta ospakizuna iragarri du Larremandi Bazkunak. Bitartean, egunotan, ekitaldirik ez da falta.

## Gurasoen iritzia



AINARA LOIARTE ANDOAIN

"Euskarazko unibertsoa osatzeko sortu da Eusfera. Andoaingo egitaraua borobiltzeko ospakizuna egingo dugu igande honetan, Etxeberrieta parkean"



IÑIGO MUÑOZ ANDOAIN

"Eusfera beharrezko ekimena da. Euskararen erabilera gutxitzen ari da eta gure umeen etorkizunaren alde egin behar dugu. Euskara babestu behar dugu alor guztietan"

## Euskal mitologian oinarrituriko gymkana

Aste osoan martxan dago Eusferaren gymkana. Pistak jarraituz, dendaz denda ibiliko dira haurrak

### Erredakzioa ANDOAIN

Gonbita luzatu zien Andoaingo Eusferak, bi aste atzera, udalerriko familia eta haurrei: "Galzagorriak, Mari eta beste izaki mitologiko batzuk herrian ezkatuta dabilta. Gymkanan, pistak jarraituz denda desberdinak bisitatu beharko dira, bakoitzean puzzleko pieza bat lortuz. Osatzen duzunean, azken festara ekarri eta saria jasoko duzu. Eta, gainera... parte-hartzaile guztien artean zozketa berezi bat egingo da: Irrisarri Land-era sarrera! Taldean edo bakarka animatu, baina prest egon puzzlea osatzeko, pentsatzeko eta batez ere... primeran pasatzeko!".

### Mitologian murgiltzeko jolasa, Salkinekin lankidetzara

Puzzlea osatzeko piezak dendaz denda jaso behar dira, Honako hau da zerrenda:

- Amabi. Zumea kalea.
- Amantegi. Kale Nagusia.
- Anita. Elizondo plaza.
- Barcelo bidaiak. Zumea kalea.
- Ernaitza. Zumea kalea.
- Orte. Kale Nagusia.
- Gamer. Kale Nagusia.
- Iturbe. Kale Nagusia.
- Xare. Elizondo plaza.
- Xixori. Txitibar plaza.

## EUSFERA ANDOAINEN

### MAIATZAK 11-16

#### ASTE OSOAN

#### GYMKANA MITOLOGIKOA

Pistak jarraituz, herriko merkatalguneak bisitatu beharko dituzte partaideek, eta gune bakoitzean puzzleko pieza bat lortuko dute. Pieza guztiak bilduta, pertsonaia mitologikoaren puzzlea osatuko dute.

### MAIATZAK 17

#### IGANDEA

#### EUSFESTA

Etxeberrieta plaza. Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako jolastokian.

**11:30** Gymkanaren sari banaketa ekitaldia eta zozketa.

**12:00-13:30** DJ Mikeltxi.

Bazkaria, nork berea eraman behar du.

**16:00** Plaza-dantzak.



Zirku-tailerra egin zuten Andoainen, aurreko asteburuan. AIURRI

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia hemen da!

Animatu eta batu zaituz Tokikom Ligako AIURRI taldera  
(maiatzaren 11tik aurrera, aplikazioko zure abatarrean klik egin)

## “Aztiker: Ekonomia beste modu batean egitea posible dela erakusten digu Beterri Saretuz sarearen parte izateak”

Beterri Saretuz sareko kide den Aztikerrek elkarlanaz, Ekonomia Sozial Eraldatzaileaz eta eskualdean sustraitutako jardunaz hitz egin du

### Erredakzioa ESKUALDEA

#### **Beterri Saretuz sareko kide zarete. Zer da Beterri Saretuz?**

Beterri Saretuz eskualdeko enpresa, kooperatiba eta eragile ezberdinek osatutako elkarlan-sarea da. Helburua da tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzaile batetik sustatzea, Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri hartuta.

#### **Zer balio partekatzen dituzue sarean?**

Elkarlana, konpromiso soziala, erabakiak modu parte-hartzailean hartzea, lan duina sustatzea eta lurraldearekiko lotura estua dira ardatzetako batzuk. Sarean gauden eragileok sektore eta tamaina desberdinetakoak gara, baina badugu ikuspegi komun bat: ekonomia tresna bat dela gizartea eraldatzeko.

#### **Zer ekarpen egiten dio sareak eskualdeari?**

Batetik, tokiko jarduera ekonomikoa indartzen du, bertako enpresen arteko harremanak eta sinergiak sustatuz. Bestetik, bestelako eredu ekonomiko bat existitzen dela eta martxan dagoela ikusarazten du. Gainera, proiektu bateratuak sortzeko eta ezagutza partekatzeko espazioa eskaintzen du.

#### **Aztiker, zein da zuen jarduna eta zer egiten duzue egunerokoan?**

Aztiker Ikergunea ikerketa soziologikoan eta parte-hartze prozesuetan espezializatutako kooperatiba bat da. 2000. urtean sortu zen, eta gizarte-errealitatea aztertzea eta komunitateen garapenerako aholkularitza eskaintzea du helburu nagusi.

Gaur egun 11 laguneko lantaldea gara. Ikerketa soziologikoak (inkestak, diagnosiak, azterketa demografikoak...), parte-hartze prozesuak eta fasilizazioak, eta aholkularitza eta formazioa eskaintzen ditugu.

#### **Nola islatzen dira Ekonomia Sozial Eraldatzailearen balioak zuen eguneroko praktikan?**

Gure kasuan, balio horiek hainbat modutan gauzatzen dira: (adibidez) gobernantza parte-hartzailea, langileen inplikazioa erabakietan, irabazien berrinbertsioa proiektuan, genero berdintasunarekiko konpromisoa, ingurumen irizpideak, komunitatearekiko elkarlana... Saiatzen gara ideia horiek gure antolaketa eta lan egiteko moduan txertatzen.



Lantaldea, Martin Ugalde Kultur Parkean. AIURRI

#### **Zergatik erabaki zenuten Beterri Saretuz sarean parte hartzea?**

Sarean egoteak aukera ematen digu antzeko balioak dituzten beste eragileekin harremana izateko, elkar ezagutzeko eta proiektu partekatuak sortzeko.


#### **Zer ematen dizue sareak? Eta zer ematen diozue zuek sareari?**

Sareak babesa, konfiantza eta ikaskuntza partekatua ematen dizkigu. Beste eragileen esperientzietatik ikasi eta lankidetzak aukera berriak sortzen dira.

#### **Zein erronka eta aukera ikusten dituzue eskualde mailan?**

Erronka dezente izango ditugu seguruenik. Tartean egon daiteke lan baldintza duinak bermatzea, orain arte ezagunak izan diren komunitate-ehunen ahultze edo birdefinizioa, digitalizazioak eta adimen artifizialak izango duen inpaktu globalak ere eragingo du...

\*Beterri Saretuz-ek eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri duten eragileak ikusarazten jarraituko du datozen hilabeteetan, hedabide lokalen bidez eta elkarriketa sorta honen bitartez.



**MLARRAMENDI**

MANUEL LARRAMENDI  
KULTUR BAZKUNA

**URTEKO BILTZAR NAGUSIA**

**Maiatzak 23, larunbata  
10:00 / 10:30 Urigain**

Bertaratzea ezinbestekoa izango da, datozen urteetako jardunak baldintzatuko dituzten erabakiak hartu behar ditugulako.

Harremanetarako:  
688 718 916 / harrera@larramendibazkuna.eus

# Hamasei herri-kirolari elkartuko dira Urnietan

Rural Kutxa Binakako Aizkora Txapelketako finalerdiak jokatu dira Urnietan, igande eguerdian, Zertzena herri kirol elkarteak antolatuta. Guztira hamalau aizkolari ariko dira norgehiagoka, eta bi harri-jasotzaileek erakustaldia egingo dute

## Xabier Lasa URNIETA

Urnietako kirolzaleen ikuspegi-tik, azpimarratzekoa da hiru herrikide ikusteko aukera izango dela bertan: Nerea Arruti aizkolaria eta Malen Morandei- eta Beñat Telleria harri-jasotzaileak.

Hamasei kirolariek osatuko dute Urnietan iragarri duten herri kirolen saio bikaina, esan bezala. Batetik, "Izar berriak" gazteen aizkora txapelketan hiru bikotek neurtuko dituzte indarrak, Astigarragan maiatzaren 31n izango den finalerako txartela eskuratu nahian: Ioan Goikoetxea-Jon Erdozia, Jon Zaldúa-Joanes Izagirre Ipiña, eta, Igoñ Pikabea-Mikel Santesteban. 16-23 urte bitarteko aizkolariak dira guztiak.

Emakumezkoen mailan, berriz, lau bikote plazaratuko dira San Juan plazan: Malen Barrenetxea-Nerea Arruti, Irati Astondoa-Ainize Perez, Oihana Fernandez de Barrena-Ekiñe Lopez, eta, Uxue Ansozregi-Maika Ariztegi.

Azkenik, Beñat Telleriak eta Malen Morandearak erakustaldia egingo dituzte harriekin.

Agurainen apirilaren 6an ekin zioten mutil gazteen eta emakumezkoen txapelketa banari, eta geroztik Altsasun, Donezteben eta Etxarri Aranatzan jokatu dituzte ligako saioak.

## Arrakasta handiko bi txapelketa

Bi txapelketek aizkolarien munduan ikuskizun handia sortu dutela adierazi du Xabier Barrenetxea. "Gazteen eta emakumeen artean bikotekako txapelketen ideia proposatu ahala, egundoko erantzuna jaso dugu. Geroztik, txoratzan dabilta txapelketetan murgilduta. Izan ere, plazak behar dituzte aizkolariak; are gehiago gazte hasi berri samarrek, zaletuentzat apenas baitira ezagunak. Gainera, egin behar da kontu, lehiaketa ofizialen eta jaietako erakustaldien

garaia pasa ostean, negu partean, zazpi-zortzi bat hilabete izaten direla herri kirolak nahiko gel-dirik egoten direna; geldialdi horrek atzendu egiten du kirolaria, ez baitauka pizgarririk segitzeko".

Barrenetxeak gaineratu duenez, kirolariengan ez ezik, kirol zaleengan ere binakako harrera ezin beroagoa eragin du Rural Kutxa Binakako Aizkora Txapelketak. "Jendez lepo jarri ditugu plazak orain arte, Agurainen, Donezteben, Altsasun nahiz Etxarri Aranatzan. Osagai ugari biltzen baitituzte txapelketek: lehiaren xarma, gazteak eta emakumeek izatea parte-hartzaileak, horiek Hego Euskal Herriko lau herrialdeetakoak izatea, aizkora hiru modalitateetan (lan luzea, zutika eta kolpeka) jardun behar izatea..."

## Zertzena elkarte, bultzatzailea

Herri kirol zaleek aurten bertan ofizialki sortu duten Zertzena Herri Kirol elkarteak antolatu du txapelketa bikoitza. Xabier Barrenetxea astigartarrak eta Gabriel Saralegi leitzarrak dira bere bultzatzaile nagusiak. Herri kiroltako modalitate guztientzat irekitasuna erakusten badu ere, aizkora bideratu ditu ahaleginak printzipioz.

Barrenetxeak adierazi dizkigu zeintzuk diren elkarte sortzeko arrazoiak, eta zeintzuk bere helburuak: "lan asko dago egiteko herri kirolak eta herri kirolariak sustatzeko, baina denetara ezin iritsi-eta, batik bat, gure ekimenak, aizkora heldu dio, 16-23 urte bitarteko aizkolariekin eta emakumeekin hain zuzen. Gabrielelek eta biok bultzatu dugu elkarte, baina ezinbestekoak diren makina bat kolaboratzaile batu zaizkigu. Poztekoa da hori".

Luis Mari Bengoak eta Egur Sport enpresak erretiroa hartu dute aizkora munduan urtetan

hainbeste lan egin eta gero, eta jada antzematen den hutsunea pittin bat betetzeko asmotan direla gaineratu du Barrenetxeak. Bestalde, gogoan hartu dute etorkizun laburrean lege berriak helduko direla herri kiroltara, eta horrela, kirolari guztiek lehiaketa ofizialetan parte hartzeko derrigorrezkoa izango dutela elkarteren batean izena emanda egotea. Alde horretatik, Zertzena elkarteak herri kirolari mordoxka erakarri du, Urumea eta Buruntzaldeko kirolariak batik bat, eta tartean dira Urnietako Telleria anai harri-jasotzaileak, Nerea Arruti aizkolaria eta Julen Gabirondo segalari-aizkolaria. "Gure elkarteak ateak zabalik dauzka herri kirolari guztientzat" Barrenetxea zehaztu nahi izan duenez.

Herri kirolak legeek behartutako egoera berrira egokitu beharko direla gaineratu du Barrenetxeak, "Elkarteak eratu egin beharko dira, izan ere, gaur egun, apenas dauden bospasei: Ostolaza eta Izetaren harri eskolak, Urretxu-Zumarragan herri kirolen taldea, Mutrikun eta Ibarren soka tira elkarteak..."

Herri kirolak sustatzea, herri kirolariak plazara eramatea, eta, herri kirol zaleentzat erakargarriak izango diren lehiaketak eta erakustaldiak plazan antolatzeko jarri ditu xede elkarteak, eta horretan dabil.

Alde horretatik, Leitzan eta Astigarragan moldatu dute leku bana egur mozketan treba daitzen aizkolariak. "Gabriel (Saralegi) aizkolarien prestatzaile bikaina da, eta aizkolaria mordoa joaten da berarengana Leitzara,

**"LAN ASKO DAGO EGITEKO HERRI KIROLAK ETA HERRI KIROLARIAK SUSTATZEKO"**



Xabier Barrenetxea, Urnietako herri kirolen saioaren kartel-iragarlearekin. AJURRI



Nerea Arrutik eta Malen Barrenetxeak bikotea osatuko dute igandean. AJURRI

Plazaolako estazio zaharraren ondoan dagoen entrenamendugunera". Herri kirolen esentzia errespetatuz, publikoa erakarriko duen osagai ikusgarriak antolatzen saiatzen ari da Zertzena elkarteak, txapelketekin eta erakustaldiekin ez ezik, baita markak ezartzeko saiakerekin ere. Alde horretatik, adibidetzat jo daiteke Nerea Arrutik eta Malen Barrenetxeak Oialumeko biltokian, Ergobin, joan den azaroan ezarritako marka (kanako enbor baten mozketak lehenak, eta oinbiko enborra 15 urterekin bigarrenak).

**TELLERIAK ETA MORANDEIRAK ERAKUSTALDIK EGINGO DITUZTE HARRIEKIN**

## Zertzena eta zaplana

"Aizkora munduan asko erabiltzen diren hitzak dira: egurra aizkorarekin ebakitzen denean, bi alderdi edo sekuentzia izaten ditu: angelu handiarekin hartzen dena, gozo-gozo, hori zaplana da; tentexeago sartzen dena, hori zertzena da".

**SAN JUAN PLAZAN, 12:30EAN HASIKO DA TXAPELKETA, ETA DOAN IZANGO DA SARRERA**



Igandean finala jokatuko dute, Allurralden. AIURRI

## Denboraldia borobiltzeko finala jokatuko dute Allurralden

Igandean, 11:30etan hasita, Junior mailako Ganbara Representaciones Justino taldea Easoren aurka ariko da

### Erredakzioa ANDOAIN

Saskibaloiko denboraldia amaitzen ari da eta Ganbara albiste onen iturri da. Kadete mailako neskek eta mutilek A3 finala irabazi zuen aurreko asteburuan. Bi kasuetan, denboraldi osoan erakutsitako jarrera azpimarratu du klubak.

### Junior mailako finalak, Allurralden

09:30etan hasita, Berabera eta Zast Zarautz emakumezko taldeen arteko lehia jokatuko da. 11:30etan, berriz, gizonezkoen finala jokatuko da Easo Murumendi eta Andoaingo taldearen artean.



Kadete mailako neskek, aurreko asteburuan, A3 ligako finala irabazi ostean. AIURRI




Jon Hernandez. AIURRI

## Kale edo bale Urnieta Artola Harategia taldearentzat

### Erredakzioa URNIETA

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Urnieta Artola Harategiak Egia Kosko Tabernaren kantxan jokatuko du Gipuzkoako Kopako azken jardunaldia. Urnietarren esku dago multzoko lehen postua lortu eta finalera iristea. Galdu ezker, denboraldiko azken lehia izango litzateke. Partida oso zaila izango da Lehen Mailara igotzea lortu duten donostiarren aurka. Datu argigarria: partida bakarra galdu dute aurten. UKEkoek kopako finalean aritzeko aukera dute, baina horretarako euren bertsiorik onena erakutsi beharko dute. Beste behin ere erritmo handiko norgehiagoka espero da, biek ere eraso defentsa baino gehiago atsegin dutelako. Beraz, erasoko jokaldietan eraginkor aritzea oso garrantzitsua izango da.



Igandean finala jokatuko dute, Allurralden. AIURRI

## Herriartekoan, Andoain taldeak ezin izan du Eibar gainditu

Giro ona sortu zen Arrate pilotalekuko harmailetan, joan den ostiralean jokatu ziren partidatan

### Erredakzioa ANDOAIN

Emaitzak ez dira Andoaingo pilotarien aldekoak izan Gipuzkoako Herriarteko Esku Pilota Txapelketako lehen jardunaldian Ondorioz, etxeko taldeak ez du bigarren jardunaldira pasatzea lortu. Maiatzaren lehen Eibarren jokatutako joaneko partidatan, Andoaingo bikote jubenilak bakarrik lortu zuen garaipena: 3-22. Kadete eta senior mailako bikoteek 22-9 eta 22-8 galdu baitzuten, hurrenez hurren.

Hasiera zail horrekin, aurreko ostiralean jokatu ziren itzulera-ko partidak. Eibarko markagai-

luei buelta emateko helburua zaila izan arren, ez zen erabat ezinezkoa. Arrate pilotalekuko harmailetan jende asko bildu zen eta giroa oso ona zen, baina, zoritxarrez, Eibarren lortutako emaitzak errepikatu ziren. Horrela, kadete mailako bikoteak 6-22 galdu zuen eta seniorrak 10-22. Garaipen bakarra, berriz ere, bikote jubenilak lortu zuen, 22-4 irabazita.

Aurtengo Herriarteko Txapelketak ez du ibilbide luzerik izan Andoaingo pilotarientzat, lehen jardunaldian kanpo geratu baitira.

## Denboraldiko azken partida, Ubitarten

Ligako azkenaurreko partida jokatuko da Ubitarten, Euskalduna eta Anaitasunaren artean.

Larunbatean izango da, 17:45etan hasita. Azpeitiarrak sailkapeneko bigarren postuan daude eta, pilotutako puntuak eta garaipen kopurua ikusita, aurkari zaila izango da urdinentzat.

AZKEN GUDA KANTXA

ERREMONTARI

2026

MAIATZAK 18, ASTELEHENA

18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

LEHEN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA + 3. SETA, 8 TANTORA

GOIKOETXEA V · JUANENEA VS  
SEGUROLA · LARRAÑAGA

BIGARREN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA + 3. SETA, 8 TANTORA

ANSA II · ZUBIRI VS  
EZKURRA II · AZPIROZ

# AGENDA

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## PARKETARRAK

### ANDOAIN Aisialdia

Euskaraz aritzeko edizio berria martxan da. 3-5 urtekoentzat, lehen txandan. 7-9 urtekoentzat, bigarrena.

17:15 / 18:15, Goikoplaza.

Maiatzak 19, 26.

17:15 / 18:15, Zumea plaza.

Maiatzak 20, 27.

## MUSIKA

### ANDOAIN Malkogarriyak

Euskal doinuak, Goikoplazan.

19:00-21:00, Xarma taberna.

Maiatzak 16, larunbata.

### URNIETA La Otra

Madriren jaiotako abeslaria.

20:00, Sarobe.

Maiatzak 22, ostirala.

## GUNEA

### URNIETA Aurrekontu irekiak

Aurrekontu irekien prozedura berria martxan da. Ohi bezala, informazio-karpa jarriko du Urnietako Udalak.

10:00-14:30, Etxeberri plaza.

17:00-20:00, Zubitxo plaza.

Bertan photocalla izango da.

Maiatzak 15, ostirala.

10:00-14:30, San Juan plaza.

Maiatzak 16, larunbata.

## MATRIKULAZIOA

### ANDOAIN Galardi

0-1 eta 1-2 urteko taldeetarako matrikula epealdia, irailan hasiko diren haurrentzat. Matrikulazio Atarian eta Andoain.eus webgunean.

Azken eguna: maiatzak 19.

## ATE-IREKIERA

### ANDOAIN Burdina

Museoen Nazioarteko Eguna dela eta, Gordelekuan ate-irekiak.

Maiatzak 15, ostirala:

10:00-13:00/17:00-19:00.

Maiatzak 16, larunbata:

10:00-13:00/17:00-19:00.

Maiatzak 18, astelehena:

10:00-13:00/17:00-19:00.



Isidoro Fernandez Andoain bizi da azken urteotan. LOINAZACTORES

### URNIETA "Herencia"

Gertakari traumatiko batek bikote baten bizitza astindu du. Dena gaueko ordu txikitan gertatzen da Javi eta Aliciaren logelan. Aktoreak: Isidoro Fernandez, Aizpea Goenaga, Garbiñe Insausti eta Iñaki Rikarte.

19:00, Sarobe.

Maiatzak 17, igandea.

## ANTZERKIA

### ANDOAIN "Kolapsoa"

Kontsumoari buruzko hausnarketa.

19:30, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 22, ostirala.

## DANTZA

### ANDOAIN Urki

Dantza taldearen emanaldia.

12:00, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 24, igandea.



Lebiton konpartsako erraldoiak, aurtengo Santa Krutz jaietan. AIURRI

### ANDOAIN Lebiton eta gure pertsonaiak

Urte berezia da Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsarentzat: 30 urteko ibilbidea erakusketara eramanez. Osteguneko eguingo dute irekiera-ekitaldia.

Irekiera-ekitaldia. 18:30, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 14, osteguna.



## MERKATU TXIKIA

### PISUKIDE BILA

IRUN

Iruneko pisu baterako neska euskaldun bila gabiltza: 665 719 827.

### IRAGARKIAK JARTZEKO BIDEAK

diseinua@aiurri.eus | 619 163 537 • 943 300 732

ARANTZIBIA 4-5, BEHEA. ANDOAIN

## ZORION-AGURRAK

diseinua@aiurri.eus | 619 163 537 • 943 300 732

ARANTZIBIA 4-5, BEHEA. ANDOAIN

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

**Zorionak Oier**  
Maiatzaren 11n  
Oier Aguirrek 14  
urte bete zituen.  
Zorionak etxeko  
guztien partetik..  
Oso ondo pasa  
genuen.

ANDOAIN

**Zorionak Natxo!**  
Maiatzaren 10ean  
zure urtebetetzea!  
Ondo-ondo pasa  
mutikote! Muxu  
potolo bat,  
etxekoak.

## ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

**Kraken: El libro negro de las horas**

Lar., 16. 19:30.

Igandea, 17. 19:30.

Astelehena, 18.

17:00, 19:30.

Los Legendarios

Lar., 16. 17:00.

Igandea, 17. 17:00.


**La isla de Amrum**

Lar., 23. 19:30.

Igandea, 24. 19:30.

Astelehena, 25.

17:00, 19:30.



## Talde eta kantutegi berriaren aurkezpena, Gaztetxean

Bertzesfer musika taldearen emanaldia arratsaldeko 19:00tan hasiko da, igande honetan



Bertzesfer taldekoak. Eskuinean, Iñigo Garrido andoaindarra. INSTAGRAM

### Erredakzioa ANDOAIN

Iñigo Garrido (gitarra eta ahotza), Mikel Uraken (baxua) eta Mikel Lertxundi (bateria) dira Bertzesfer eta igandean disko berriena aurkeztuko dute Andoaingo Gaztetxean. Emanaldia arratsaldeko 19:00tan hasiko da. Aurretik R, Loane eta Krell musika taldeetan aritutakoak dira.

2025eko ekainean grabatu zuten lehen demoa Andoaingo lokalean. Metz, Kowloon Walled City edo Russian Circles taldeen estilora hurbiltzen omen da euren musika. 2026ko urtarrilean Zarautzeko Noisestudioan lehen diskoa grabatu zuten. Kantu horiek entzungo dira Andoaingo Gaztetxean, igande honetarako iragarri duten emanaldian.